

# LEIOAKO AUZOETAN 2026ko EKITALDIAN KULTURA JARDUERAK ANTOLATZEKO OHIKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

## 1. artikulua.- DEIALDIAREN HELBURU ETA XEDEA:

Deialdi honen xedea da Leioako udalerriko Festabatzordeek eta Kultura-elkartek 2026ko ekitaldian egindako kultura jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzea. Jarduerak auzo bakoitzeko jaiegunekin bat ez datozen egunetan egingo dira

## 2. artikulua.- ONURADUNAK:

Honen bitartez deitzen diren ohiko dirulaguntzen onuradun izan daiteke nortasun juridikoa duen edozein pertsona, baldin eta egoitza soziala edo establezimendu iraunkorra Leioan badauka eta Leioako Udaleko Elkarteen Erregistroan eta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen eta Erakundeen Erregistroan inskribatuta badago. Horrez gain, kirol arloko jardueraren bat garatzeko asmoa eduki behar du eta hau interesgarria izan beharko da Leioako udalerrirako, deialdi honetan eta Leioako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko bigarren oinarrian zehazten diren irizpideekin ados. Ondorio horietarako, udal- interesekotzat hartuko da elkarte horrek diru- laguntzaren xede den jarduerarekin udalerriko biztanleen artean duen eta sortzen duen inpaktua, eta alderdi hauek balioetsiko dira, besteak beste Leioan eta Leioatik kanpo duen eragina, irudi positiboa eta/edo garrantzia

Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzen Lege Orokorreko 13.2 artikuluan ezartzen diren debekuren bat duten entitateek.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 23.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, ezin izango da inolako laguntza edo dirulaguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen jarduerarik egiteko, ezta lege horren 3.1. artikuluan bereizkeria anizkoitza eragiten duten arrazoiak direla-eta diskriminaziorik egiteko ere, ezta sexuagatiko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko eta juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian. Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plana indarrean izan behar duten enpresek ere ezin izango dute laguntzarik edo diru-laguntzarik jaso, ezta sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta haien aurre egiteko neurririk ezarri dutela egiaztatzen ez duten 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritako baldintzetan.

Pertsonak edo entitateek onuradun izateko inolako debekurik ez dutela justifikatzeko, ardurapeko adierazpen bidez egin dezakete.

## 3. artikulua.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA, MODUA ETA EPEA:

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea betez, pertsona juridikoei, besteak beste kultur-erakundeek, herri administrazioekin harreman elektronikoak izan behar dituztela ezartzen du. Horregatik, kultur entitateek Leioako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko dituzte bai eskaera bai eskatzen zaizkien gainerako izapideak:

<https://udaletxean.leioa.eus/>

*ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:*

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Diru-laguntza normalizatuaren eskaera (**A1. Subv1**).
- Jarduera edo ekitaldiaren programa zehaztua, gutxienez, honako hauek barne hartuz: proiektuaren deskribapena, jardueraren publikoa zein den, helburuak eta Leioako Udalarentzat jarduera zergatik den interesgarria beren-beregi aipatzea. Horiez gain, burutzeko lekuak eta datak zehaztu behar dira.
- 2026 urterako ekintzen aurrekontua.

Aurreko urteko diru-laguntzan eskatzaileek ez dute agiri hauek aurkeztu beharko aldaketarik izan ezean:

- Hirugarrenen fitxa.
- Entitate eskatzailearen estatutuen kopia.
- Zuzendaritza batzordearen osaera.
- Eskabidea aurkeztu eta aurreko urteko diru-sarrera eta gastuen balantzea.

## *ADMINISTRAZIOAK DITUEN BALDINTZAK BETETZEN DITUELA EGIAZTATZEKO INFORMAZIOA*

Aurkeztu beharreko dokumentuak Leioako Udalak dituenean, ez da beharrezkoa izango berriz aurkeztea, betiere zein sailetan eta noiz aurkeztu ziren zehazten bada, eta bost urte baino gehiago igaro ez badira agiriok aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik.

Leioako Udalak, eskuragarri dauden datu-bitartekaritzako sistemen bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruz, bai eta dagokigun diru-laguntza administratiboki izapidetzeko eskatzen den beste edozeini buruz ere, horretarako inprimakietan adierazitakoaren arabera. Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria honako hauetan zehazten da: pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazioekin egin dituen dokumentuak ez aurkezteko, bai eta beste edozein administrazioekin egindakoak ere. Hori dela eta, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak dituzten dokumentuak edo ziurtagiriak eskatzeari utziko zaio, betiere interesdunak [edo haren ordezkariak] datu horiek erabiltzearen aurka egiten ez badu; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Leioako Udalak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluan adierazten duen bezala, administrazioek lankidetzan jardun behar dute datu-trukearen inguruan, eta haien esku dauden herritarrei buruzko datuak eman behar dituzte.

Ofizioz, dokumentazio/informazio hau erantsiko zaio espedienteari, interesdunak berariaz kontrakorik adierazten ez badu behintzat:

- Pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa.
- Banku-kontuaren zenbakiaren titulartasuna egiaztatzea, eta hirugarrenen fitxan adieraztea.
- Tokiko Ogasunarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen justifikazioa.
- Eskatzaileak, indarrean dagoen legeriaren arabera, Gizarte Segurantzarekin derrigorrezko lotura badu, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin ordainketa egunean duela egiaztatzen duen justifikazioa.

Diru-laguntza jasotzeko eskaera aurkeztu bada, aldi berean, beste erakunde publiko edo pribatu baten, Leioako Udalaren aurrean aurkeztzen denak hori beren-beregi zehaztu beharko du, aipatuz zein erakunde edo erakundeei eskatu zaien eta eskatutako, edo hala badagokio, jasotako zenbateko zehatzak.

Kasuan kasuko berezitasunak aintzat harturik, Udalak eskatzaileari eska diezaioke egoki deritzon edozein agiri osagarri, proiektua bere osotasunean balioeste aldera

*Eskabideak baztertzea:*

Azalpen memoria edota Leioako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio dokumentalik aurkeztu ez duten pertsona edo entitateen eskabideak ez dira aintzat hartuko, eta, ondorioz, ezetsi egingo dira.

*Osorik ez dauden edo akastunak diren eskabideak:*

Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osorik ez balego edo konpon daitekeen akatsik baleuka, eskatzaileari esango zaio gehienez 10 lan eguneko epean konpontzeko, jakinarazpen hori egin eta biharamunetik zenbatzen hasita. Jakinaraziko zaio, halaber, horrela egin ezean eskabidea bertan behera geratuko dela.

*Epea:*

2026ko ekitaldian egiten diren jardueren eskabideak aurkeztu ahal izango dira. Eskabideak aurkezteko epea 2026ko azaroaren 30ean amaituko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

Eskaerak aipatutako epeez kanpo aurkezten badira, ez dira onartuko, eta izapide gehiago egin gabe artxibatu egingo dira.

#### **4. artikulua.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

Eskatzaileen artean banatzeko gehienezko zenbatekoa 15.000 eurokoa izango da. Gastu hori 2026 00900 33800 4811525 aurrekontu partidari kargatuko zaio.

Zenbateko hau 2026. Urteko Aurrekontu Orokorraren transferentzia arrunten eranskinean eta 2023-2027 Leioako Udaleko Diru-laguntzen Plan Estrategikoan jasotzen da

Eskatzaileen artean eman beharreko diru-laguntzek ezin dute jardueraren aurrekontu osoaren %40 gainditu.

#### **5. artikulua.- EMAKIDARAKO PROZEDURA:**

Diru-laguntza hauen emakida prozedura norgehiagokaren bidezkoa da.

#### **6. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:**

1.- Proiektuak baloratzeko honako faktore hauek hartuko dira aintzat:

- Eskatzaileak garatutako aktibitatearen jarraipena urteetan zehar.
- Udal programak antolatzeko kolaborazioa.
- Udal programa eta aktibitateetan parte hartzea.
- Aktibitate edo proiektuaren originaltasuna edo oportunitatea, Udalaren babespean egiten diren antzeko jardueren erreparatuz.

- Proiektua egokia izatea eskabidean azaltzen diren helburuetarako.
- Proiektua garrantzitsua izatea Leioako testuinguruan.
- Zein kolektibotarako den.
- Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa, aktibitatea garatzeko eskatzen diren baliabideei eta Udalak horiek erabilgarri izateari erreparatuz.
- Garatutako aktibitatearen kostuak.
- Eskatzaileak berak dituen baliabide ekonomikoak.
- Beste finantzazio bide batzuetara jotzeko zailtasuna edo beste erakunde batzuetatik jasotako finantzazioa nahikoa ez izatea.

- Antolatzeko ahalegina, aktibitatea garatzeko behar diren giza baliabideen, egituraren edota baliabide ekonomikoen ikuspuntutik.
- Aktibitatea garatzea EAEn ofizialak diren bi hizkuntzak erabiliz.
- Proiektuan genero ikuspegian txertatzea.

2.- Leioako Udalaren Kultura eta Gazteria Sailak baloratuko du proiektu bakoitza bere osotasunean, eta aholkularitza eskatu ahal izango die egoki irizten dituen pertsona edo entitateei.

## 7. artikulua.- INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA

Instrukzio organoa Kultura eta Gazteria Saileko zuzendaria den udal langilea izango da. Berori ez balego, presidentek teknikari egokia izendatuko du.

Ebaluazioa egingo duen kide anitzeko organoa honako hauek osatuko dute:

- Kultura, Kirol, Gazteria eta Hizkuntza Politika Batzordearen presidentea, Alkatetzaren ordezkari gisa.
- Bokalak:
- Herritartasun Batzordeko kide diren zinegotziak, presidentetzak izendaturik.
- Hezkuntza Atalera adskribatuta dagoen euskara teknikaria.
- Kultura eta Gazteria Arloko zuzendaria, deialdia arlo horri badagokio, eta Kirol Arloko zuzendaria, deialdia arlo horri badagokio.
- Bokal gisa integratu ez den arloko zuzendaria izango da idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.
- Ez egoteak gertatuz gero, presidentetzak teknikari egokia izendatuko du.

Eskabideak Alkatetza Dekretu bidez ebatziko dira Kultura eta Gazteria Saileko zuzendariaren proposamenez, Kirol eta Gazteria Informazio Batzordeari eta Tokiko Gobernu-Batzarrari jakinaraziko zaie.

Deialdi honek arautzen dituen diru-laguntzak eman ahal izateko, erabakitze momentuan aurrekontu eta kreditu nahikoa eta egokia eduki beharko da.

Aurretiaz Leioako Udalaren diru-laguntzak lortu izana ez die eskatzaileei inolaz ere aldeko eskubiderik ematen, eta ez dira aintzat hartuko modu horretako aurrekariak emakida berrien kasuan.

Interesatuei jakinarazpena egiteko epea 10 egunekoa izango da, ebazpena egiten den egunetik aurrera. Jakinarazpena horretarako jakinarazitako posta elektronikoa bidez bidaliko da.

Epea igarota, ez balego eskaerari legokiokeen beren-beregiko ebazpenik, ukatutzat emango da, aurrerago beren-beregi ebatz litekeen arren.

Leioako Udalak behar den moduan emango du jakitera espedientean jasotako informazioa, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritz.

## **8. artikulua.- ONURADUNEN OBLIGAZIOAK:**

Deialdi honetako diru-laguntzen pertsona edo entitate onuradunek honako obligazio hauek bete behar dituzte:

- Diru-laguntzak ematea arautzen duen Leioako Udalaren Udal Ordenantzak zehazten dituen arauak behar bezala bete, baita diru-laguntza emateko ebazpenak ezar litzakeen baldintza zehatzak ere, batez ere Leioako bizilagunen ongizatean eragin zuzena duten gaietarako dagokienez.

- Emandako diru-laguntza onartu. Emakida jakinarazten den egunetik aurrera, zazpi eguneko epean, pertsona edo entitate onuradunek ez badiote beren-beregi eta idatziz diru-laguntzari uko egiten, onartutzat joko da.

- Diru-laguntza erabili eskatu zen helburu zehatzerako.

- Diruz laguntzen den aktibitatea garatzeko behar beste baimen eskuratu.

- Aktibitate eta ikuskizun publikoei buruzko indarreko araudia bete (Eusko Legebiltzarraren abenduaren 23ko 10/2013 Legea, ikuskizun publiko eta jolaserako aktibitateei buruzkoa; eta ekitaldi horiek arautzen dituen Udal Ordenantza, bereziki Prozedura Bilduman 13. Ataleko fitxetan ezarten dena. <https://leioahurbil.leioa.net/es> webgunean eskuragarri), baita dagokion esparrura aplikagarriak diren gainerako araudi guztiak ere, estatukoak edo erkidegokoak.

- Programazioa garatzeko azpiegitura eta materialei dagokienez, entitate eskatzaileak erabili ahal izango ditu, betiere udal arduradunen jarraibideak errespetatuz, dagokien xederako erabiliz, zaintzaren ardura hartuz eta ondasun edo pertsonen eragin liezazkioketen kaleen gaineko ardura hartuz.

- Arduradunen jarraibideen aurka egiten dutenek edo jaramon egiten ez dutenek, edo espazioak, azpiegiturak eta materialak programatutako aktibitateen helburuetarako erabiltzen ez dituztenek, edo orokorrean, horiek kaltetzen dituztenek aplikagarria den araudiaren arabera zigorra jasoko dute, betiere intenzionalitate, faltaren larritasuna eta kaltearen zenbatekoa aintzat harturik. Edozein kasutan ere, zigorrak jartzeko, aurretik, inputatutako pertsona edo pertsonen entzunaldia beharrezkoa izango da, eta kasu horretan, kalteak ordaintzeko beharri ez dio eragiten.

- Giza eskubideak eta pertsonen arteko bizikidetzaren balioak errespetatzea, eta, ondorioz, ez erakustea herritarrentzat iraingarriak izan litezkeen sinbolo edo elementuak edo erabiltzaileen duintasuna hautsi edo indarkeria justifikatuta dagoela iradokitzen dutenak.

- Erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurka duen konpromisoa ikusaraztea.

- Promoziorako elementuetan eta diruz lagundutako jardueretarako sortzen diren kartel, testu edo dokumentuetan, EAEko bi hizkuntza ofizialetan idatzi behar direnak, Kultura Kirol eta Gazteria Atalaren babesa aipatu eta komunikazio inklusiboa bermatuko dute, bai hizkuntzan, bai irudietan.

- Gobernu Onaren Ordenantza eta Gizabideari buruzko Ordenantza betetzea, espazio publikoen erabilera eta hiriko paisaiaren babesa aratzen dituen, eta bereziki II. Kapituluko 1. Zatiaren 10. Artikuluan eta III. Tituluko I. Kapitulua 42. Artikuluan jasotakoa, hurrenez hurren.

- Udalak eskatzen duen kolaborazioari erantzun –bereziki, euskararen erabilerari dagokionez- diruz lagundutako aktibitatea edo ekitaldia hobeto garatze aldera. Kontrako erantzunik jaso gero, eskabidea artxiba daiteke, edo hala badagokio, emandako diru-laguntza itzultzeko obligazioa, egoki lirakeen zigorrek ezartzeaz gain.

- Helburu berbererako jaso den beste edozein diru-laguntza jakinarazi, publikoa ala pribatua, eta betiere, jasotako zenbatekoa adierazi.

- Leioako Udalarekin kolaboratu, eskatuz gero, ikerketa, inkesta edo estatistikak lantzeko edota lantaldeetan parte hartzeko.

- Udalak egin ditzakeen egiaztapen-jarduera guztiei men egin.

- Deialdi honen 9. artikulua ezartzen duen bezala, emandako zenbatekoa nola erabili den gaineko zuribidea egin.

- Jasotako dirua zertan erabili den justifikatzen duten agiri guztiak gorde, egiaztatze eta kontrol jardueretarako eska baitaitezke.

- Kontabilitate liburuak, erregistroak, diligentziatuak eta bestelako agiriak behar bezala ikuskatuta eduki, merkataritza legeak eta onuradunari aplikatu dakioken sektoreko legeak exijitzen duten moduan, baita diru-laguntzen oinarri arautzaileek exijitzen dituzten kontularitzako egoerak eta erregistroak, egiaztatze eta kontrol eskumenak egoki exekutatzeko aldera.

- Jasotako dirua itzuli (azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan zehazten dituen itzulketarako kasuren bat ematen bada).

## **9. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA:**

1.- Diru-laguntzaren xede den aktibitatea behin amaituta, erabilera egokia egin dela ziurtatzen duen agiri bidezko justifikazioa egin beharko da.

2.- Horretarako aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- Garatutako aktibitatearen memoria zehaztua. Emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko, erakunde onuradunek, dirulaguntzak ematerakoan ezarritako betebeharrak betetzen dituztela justifikatzeko memorietan, emandako zerbitzuaren azken onuradunen edo erabiltzaileen, erakundearen titularren eta plantillaren sexuaren arabera banakatutako informazioa aurkeztu beharko dute, bai eta dagoen erakundearen plantilla kontratatua, hala badagokio, xede den zerbitzua ematea dirulaguntza emateko moduz gain, ikuspegi generokoa garatu dela modua.

- Aktibitatearen ondoriozko diru-sarrera eta gastuen balantzea; diruz lagundutako aktibitateerako jaso den beste edozein diru-laguntza, publiko edo pribatu, sartu beharko da.

- Aktibitatearen eraginez sortutako gastuen faktura originalak, emandako zenbateko osoa bete arte.

- Fakturretan honako hau zehaztu beharko da ezinbestean:

- Entitate, Elkarte eta abarren Identifikazio Fiskala.

- Hornitzailearen identifikazioa.
  - Fakturaren data.
  - Zerbitzua behar duen aktibitatea.
  - Zerbitzuaren deskribapena.
- Honako hauek ez dira egiaztagiritzat hartuko:
    - Administrazio, antolakuntza eta abarren barruko kostuak.
    - Anaitasun bazkari edo antzekoen kostuak.
    - Ordainagiriak.

Era berean, egindako ekintzaren inguruko gastu eta sarrera guztien zinpeko deklarazioa aurkeztuko da.

- Diruz lagundutako aktibitate edo ekitaldiaren testuinguruan editatu edo argitaratutako eskuorri, kartel, liburu, bideo, CD eta abarren ale bana eman. Horietan, Leioako Udala agertu beharko da diruz lagundutako aktibitatearen babesle bezala.
- Garatutako aktibitateen justifikazioa eta horietako bakoitzaren gastua.

3.- Justifikatzeko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, aktibitatea bukatzen denetik zenbatzen hasita.

Gehieneko epemugatik bi hilabete igaro ondoren, diru-laguntza justifikatu gabe dagoela ulertuko da, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeko 37b artikulua dioenari jarraiki, eta dirua itzultzeko eskatuko da.

4.- Aktibitatea beste edozein entitate publikoak edo pribatuk jarduera kofinantzatu duen kasuetan, justifikazioaren parte bat izango da funts horiek nondik datozen eta diruz lagundutako aktibitatean zertan aplikatu den egiaztatzea.

5.- Onuradunak aurkeztutako agiri originalak behar baditu, beroriek fotokopia banarekin aurkeztuko dira, erkatzeko, eta originalak zigilatzeko. Ondoren, originalak itzuliko zaizkio.

6.- Justifikatzeko aurkezten den dokumentazio guztiak ekitaldi ekonomikoaren data eduki beharko du diru-laguntza eman ahal izateko.

## 10. artikulua.- BATERAGARRITASUNA.

Diru-laguntza hauek deituta edo dei daitezkeen beste diru-laguntza batzuekin bateragarriak dira, betiere jasotako diru-laguntza guztien batuketak ez badu aurkeztutako aurrekontua gainditzen. Egoera horretan, dagokion zenbatekoan gutxituko da deialdi honen bitartez emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

## 11. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA.

Leioako Udalak, ohiko diru-laguntzen %100 ordainduko die 2026ko diru-laguntzen onuradun direnei.

## 12. artikulua.- EBAZPENA ALDATZEA.

Diru-laguntza emateko aintzat hartu diren irizpideen gaineko edozein aldaketak, betiere diru-laguntzaren xedea bete dela ulertzen bada, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatzea ekar dezake.

## 13. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA:

1.- Jasotako laguntza Udal Diru-kutxara itzuli behar izatea gerta liteke, diru-laguntza ordaindu zenetik eta itzulketaren bidez kotasuna erabaki bitarteko epeari legezkoak diren baldintza guztiak bete barik, honako kasuren bat jazoko balitz:

- Emandako zenbatekoa eskatutako xederako ez erabiltzea.
- Diru-laguntza jaso izana horretarako beharrezkoak ziren baldintza guztiak bete barik.
- Onuradunari leporagarriak diren arazoak direla-eta, deialdi honetako 8. artikuluan onartutako obligazioekin ez betetzea.
- Justifikatzeko obligazioarekin ez betetzea deialdi honetako 9. artikuluan zehazten diren terminoetan. Gastuaren justifikazioa partziala egingo balitz, justifikatu barik geratu den zenbatekoari legezkoak diren zenbateko baliokidea itzuli beharko litzateke.
- Aktibitatearen kostu errealari erreparatuz, gehiegizko finantzazioa. Kasu horretan, soberakina itzuli beharko da.

○ Bestelako erakunde publiko edo pribatuak emandako diru-laguntza guztien batuketaren ondoriozko gehiegizko finantzazioa. Hala balitz, onuradunak Leioako Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko luke, Udalaren ekarpenarekiko proportzionala, finantzatutako zenbateko osoarekin alderatuz.

○ Aktibitatea burutzeko edo proiektua exekutatzeko moduari erreferentzia egiten dioten eta diru-laguntza ematen duen ebazpenean onuradunari ezarritako baldintza edo obligazioekin ez betetzea. Kasu horretan, hausteen larritasuna baloratuko da itzuli beharreko zenbatekoa erabakitzeke, ekitate eta proportzionaltasun printzipioak aintzat harturik.

2.- Guztira edo zatitan itzuli beharreko zenbatekoa erabakitzeke, proportzionaltasun eta ekitate printzipioen arabera egingo da. Horretarako, kasu konkretu bakoitzeko ezaugarriak erreparatuko zaie.

3.- Diru-itzulketa exijitzen duen ebazpena Alkatetzak emango du.

4.- Diru-laguntzen Lege Orokorraren II Tituluaren II kapituluak ezartzen duenaren arabera, diru-itzulketaren espedientea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren azaroaren 26ko 30/92 Legearen VI Tituluak ezarritako prozedurarako arauetara egokituko da, eta bertan entzute-izapidea emango zaio interesatuari, 15 lan eguneko epea izango duena.

5.- Diru-laguntza itzultzeko obligazioa egiaztatuta, organo eskudunak ebazpena emango du betekizun hori aitortzeko. Ebazpenean dirua itzultzeko beharra eragiten duen arazoia, itzuli behar den zenbatekoa eta diru-sarrera egiteko epe boluntarioa beren-beregi aipatu behar dira. Halaber, ohartaraziko da, itzulketa epe barruan egin ezean, premiamendu bidez egingo dela.

### **Azken xedapena.**

Diru-laguntzen deialdi honek aurreikusten ez dituen kasuetarako, honako lege eta araudiak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra; azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Leioako Udalak ematen dituen Diru-laguntzen Oinarri Arautzaileak onartzen dituen Ordenantza Orokorra.